



EUSKAL KIROLARI



Agur t'erdi,

Honako honen bidez, joan den Azaroaren 16an, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak aurkeztutako Euskal Kirolari proiektuaren berri eman nahi dizugu.. Euskara eta kirola uztartzen dituen proiektua da Euskal Kirolari. Izenak, izana islatzen du, Euskal Kirolari gaztetxoek aisialdian, kirola, euskaraz egiten laguntzeko proiektua da. Izan ere, kirola haurtzarotik egiten dugun arren, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera eskolaz kanpoko prestakuntza jardueren barne kokatzen da modu ofizialean, nola eskola kirolaren bitartez, hala kirol eskola ezberdinen bidez. Aldaketa horretan, gaztetxoek hizkuntzan hiztegi berri bat sartzen da, kirol mota bakoitzari lotutakoa. Sarritan, hizkuntza hori gaztelerazkoa izaten da.

Horri buelta emateko xedea du Euskal Kirolarik. Kirol bakoitzari dagozkion hitz teknikoak eta hiztegi propioa gaztetxoengana gerturatzea du helburu proiektuak ahalik eta era naturalenean, freskoenean. Honela, gaztetxoek artean euskara sustatuko da oso gustuko duten jardueren baten bidez: kirola.

Eremu digitalean eta sare sozialetan batik bat garatuko den proiektu honek punta-puntako kirolariak erabiliko ditu 'amu' gisa euskara indartzeko kirolaren munduan. Hauek, zenbait bideo grabatu dituzte euskararekin duten harremana azalduz edota beren kirolari loturiko euskarazko terminologia argituz..

Proiektuaren hasierako edizioak bost bideo dakartza eta zazpi kirolarik parte hartu dute: Mikel Landak txirrindulariak, Julen Goia errugbilariak, San Juan Koxtape Arraun Elkarteko patroi Nerea Perezek, Iñigo Martinez Real Sociedad taldeko jokalariek eta Athelticeko Kepa Arrizabalaga atezainak, azken biak Ondarrotarrak.

Aipa helburua lortze aldera, proiektu honen hedapena bilatu nahiko genuke klubetan, kirol-federazioetan edota ikastegietan. Horrekin batera, ekimenaren bidez beste bultzada bat eman nahi zaio Eusko Jaurlaritzak garatutako hiztegi terminologikoei (horietako batzuk kirol zehatzen inguruan egin ziren).

Kirolari ezagunekin garatutako bideo hauek formatu ezberdinetan landu dira, helburuen arabera: 'pilulak' (azalpen praktikoak kirol-diziplina ezberdinen inguruan), 'gertutik' (kirolariak hurbiletik ezagutzeko formatua), 'erronka' (kirolariak elkarren arteko lehiari jarriko duen atal bat) eta 'autoan' (Txurru kirolarien autoan sartuko da gai ezberdinen inguruan hitz egingo du).

Lehenengo bost bideoak 2017ko azken asteotan zehar eta 2018ko lehenengoetan zabalduko dira, eta proiektuak jarraipena izango du 2018an zehar protagonista berriekin. Bideook Euskal Kirolari-ren youtubeko kanalean kontsultatu ahal izango dira, honen inguruan sortutako sare sozialetan (Facebook eta Instagram) eta <http://www.euskadi.eus/web01-a1euskir/eu/> web gunean.

Grabaketak, tonu informalean eta era dinamikoan landuak, kirol federazioetan, klubetan edota ikastegietan hedatzea nahiko genuke, euskararen erabilera sustatzeko erreminta berritzaile bat eskaintze aldera.

Harremanetan jarri nahi izanez gero, euskara-sustapen@euskadi.eus helbidera idatzi daiteke.

Informazioa baliagarria izango zaizulakoan,

Jaso ezazu gure agurrik beroena,

2017ko abendua

Bloga: <http://www.euskadi.eus/web01-a1euskir/eu/>

You Tube kanala: <https://www.youtube.com/channel/UCaKD0LtcKVh9CXyM7H-Kq1Q>

Facebook: <https://www.facebook.com/euskalkirolari/>

Instagram: <https://www.instagram.com/euskalkirolari/>